



Hiruputzu Gaztetxean lapurreta egin dutela salatu dute

JABI GONZALEZ TOSTON :: 08/12/2023

Kontzertuetarako materiala eta baliozko tresnak eraman dituztela zehaztu dute.

Hipurutzu gaztetxeak salatuzuen abenduaren 6ko gauean lapurreta egin zutela eraikinean eta "gaztetxeen aurkako erasorik ez" egiteko aldarrikatu du. Sare sozialetan eman du gertatutakoaren berri eta hainbat irudirekin lagundu du informazioa indarrez nola sartu diren erakusteko. Bertan sarraila hautsita ikus daiteke.

Horrez gain, Hipuruputzuk jakinarazi du, besteak beste, kontzertuetarako materiala eta baliozko tresnak izan direla ostu dizkietenak. Halaber, Arraio Irratiak zehaztu du haren materiala ere eraman dutela.

Hiruputzu Gaztetxean lapurreta egin dutela salatu dute - Zarautz - Zarauzkohitza.eus

<https://eh.lahaine.org/hiruputzu-gaztetxean-lapurreta-egin-dutela>